

“Baliente galanta jendeari zer gustatuko zaion dakiela uste duena!”

Nagore Aranburu | Orotarikoa

Zinetik dator eta monologoetara doa.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Zergatik erantzuten dituzu pelikula ikusi ez duten kazetarien galderak?

Zazpi egunkaritan aterata askoz aukera gehiago daukagulako jendearengana iristeko. Ez gara Almodovar edo Banderas, komunikabideen eskuetan gaude.

Ez esan zuek ere negar eta negar ari zaretela aretoak husten ari direlako.

Ez naiz hain dramatikoia. Pelikula edo antzerki obra onak egiten direnean jendeak erantzuten du. Kexatu beharrean, pauso bat aurretik joan, eta jendearengana nola iristen segi pentsatu behar genuke. Ez gara preokupatu behar, okupatu baizik.

Jendearen gustua egiten okupatu?!

Sortzerakoan akats larria da jendearen gustuari begira egotea. Ez dut ezagutzen horrela sortu eta funtzionatu duen ezer. Publikoaren inteligentzia aurrez baloratzea da hanka sartzeko berme gorena. Ez gara manualekoak.

Zinema komertzialaren guruen ustez, bai.

Zinema, antzerkia edo telebista, istorioak kontatzeko bideak dira, baina bide horiek entzulearekiko elkarrizketan oinarritzen dira, ez monologoan. Horregatik, baliente galanta jendeari zer gustatuko zaion dakiela uste duena!

Baita EITBra fikzioa saltzera doana ere.

Ez dagoela dirurik, murrizketa handiak egon direla... Gauzak egiten hasten gara ala ixten dugu, baina ezin dugu zero audientzia duen

kate baten agonia luzatu. Noiztik ez duzu entzun ETB1-eko ezeri buruzko komentario-rik?

Madrilera joan nahi duzu, ala?

Madrilera joateak gartzetan apurua ematen zidan eta orain nagia. Hori bai, deituz gero berehala joango nintzateke. Erronka berriak asko gustatzen zaizkit, oso gustura egingo nuke erdaraz lan... Baina badakizu Madrilan zenbat aktore dauden ni baino fotogenikoagoak?

Eskerrak aktorea ez ezik, gidoilari, monologo-egilea... eta orotariko emakumea zaren!

Euskal Herrian, ofizioan, lasai bizirauteko modu bakarra da. Badakit ezingo naizela inoiz ezertan espezializatu, ez naizela sekula gidoilari distiratsua izango, baina aktore izateak idazten laguntzen dit, eta gidoilari izateak aktore izaten. Ez da gutxi, ezta?

Geldi egoteari izan ezik edozeri topatzen diozula alde ona, alegia.

Ez dago geldi egotea bezalakorik zuloan sartzeko. Dena haizea hartzera bidaltzeko gogoia ematen du. Eskerrak mugimenduak eta ekiteak gutxiago pentsatzen eta aurrera egiten laguntzen didaten!

Carpe diem, my friend...

Carpe diem? Ofizio ezeگونkorrean nabilen munduko pertsona “segurolena” naiz. Zer esanik ez haurtzaindegia urte osorako ordaindu behar dudanetik. ■

